

aiker!

txirrriko aldizkaria

Gaizka Garitano,
futbolaria

“Oso pozik
nago Errealean”



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Juntxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Oihana Astobiega, Maripi Agirre, Juan Luis Goikoetxea, Jabi Agirre, Fernan&Fernando, Iera Hernandez, Ortzi Garitano, Iñaki Sagrario, Lutxi Silvano eta J.I. Eguzkizaga.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzak



Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



11 Tonino Carotone



22 Esmaspadel



26 Gazte-Elai txistu taldea



20 Metal festibala Loiun

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **10**Jon Uria eta Mikel Urrutia **11**Gurean izan da... Tonino Carotone **12**Gazteen Txokoa **14**Gaztea eta... Alex Garrido **20**Metal Festibala Loiun **22**Esmaspadel **24**Nemesio de Joaquin eta Adelaida Gutierrez **26**Gazte-Elai txistu taldea **28**Osasuna **29**Teknologia **30**Musika **31**Txorierri ezagutu **32**Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

Made in China



FERNANDO LARRONDO
(Irakaslea)

Lehenengo munduak hain berea dauen udako oporren osteko sindrome elebrearen eraginpean gagozan honetan, pribilegiatuen klub horretan sartzeko ahaleginetan dabilen herrialde honek munduko ordena ekonomikoa hankaz gora jarri daike epe labur baten, dagoaneko ez badago

nahiko iraulia. Gure statusari eusteko dogun petrolioarekiko menpekotasun basatiak ekarriko dauan abinentzia sindrome globalari aurre egiteko ez dirudi klinika edota tratamendurik dagoanik, epe laburrean behinik behin. Antza danez, 1.300 milioi behargin finek daukie honen errua, diziplina ezin hobean eta gure ikuspegitik ia musutruk jardunaldi amaigabeetan aritzeagaitik. Bataz beste, 150 euroko hileko soldataren truke ibiltzen dira jo eta ke, gure kontsumo-ohitura aseezinei erantzun gurean.

Azkenengo 10-15 urteetan gure herrialdean ezagutu dan bizimailaren gorakadeagaz batera, denboran atzera lar jo barik prezio aldetik ia erostezinak ziran ondasunen erosle eta kontsumitzaile bihurtu gara, prezioen gehikuntzei lasai asko erantzunez ganera, gauzak merketuten egongo balira lez. Esaterako, hain mendizalea dan herri honetan, leporaino bete gaitue beren marka eta tramankulu sofistikatuekin kirol eta mendiko produktuak saltzen dabezan etxeek. Gu, zelan ez, harro-harro, kalitate handiko arropa eta oinetakoak erabiltzen ditugula eta. Marka bat baino ez deusuet esango, Salomon. Orain dala urte batzuk prezio eskuraezinak eukazana, eta gaur egun, hamabost urteko edozein mukitsuk darabilana.

Goi mailako teknologia, lehengai ezinhobeak, puntako diseinua, baina eskulana.... eskulana txinatarren esku. Eta txinatarrek aipatzean, indiar, vietnamdar, korear.... eta, oro har, Asiako Hego-Ekialdean bizi diranei buruz ari naiz.

Azkenengo hilabeteetan biztu da alarmea, gasolindegietan autoaren depositua betetzeko gero eta diru gehiago behar dala. Lehengo 5.000 pezetakoak ez dau jada ezertarako balio. Berandu barik, Visa Orogaz joan beharko. Eta honen errua, gure poltsikoaren kontrako eraso honen erantzuleak, txinatarrek, beren lanarekin gure bizimaila marvellous honi eustez gain, urteko %8-10eko hazkunde ekonomiko bat lortzen ari diralako.

Eta Bugs-Bunny elebreak esaten eban moduan, hau ez da amaitu, lagunok! Pentsa eizue zer izango dan txinatar familia bakoitzean auto bat edo bi erosten hasten diranean.

Euskaraz entzutea

“Zein ederra dan euskaraz entzutea” esateetik “Zein aberasgarria den euskaraz bizitzea” pentsatzera pasa behar dogu.

Bilboko denda edota kafetegi batera joan, euskaraz eskatu eta normal-normal erantzuten dabenean, zelako poza hartzen dan! Ezta halan? Korte Ingelesean egon eta inguruko jendea entzuten dozunean lotsa barik, normal-normal, euskaraz berba egiten; edo Ercilla hotel parean gizonezko bi eta emakume bat ezin baino dotoreagoak laneko ideak trukatzten euskara garbi-garbian; edo hondartzan zagozela familia bat edo gazte kuadrila bat, normal-normal, euskaraz berbaz entzutea baino plazer handiagorik! Gustua ematen dau! Baina gauza bat esan behar dotzuet: ondino holan ibili behar dogu?

Zergaitik pentsetan dogu oraindino, euskaraz aitite-amamagaz edo euskaltegiko irakazleekaz edo euskara alkartekoekaz baino ez dogula egin behar? Tristura handia emoten dau, ez duzue uste?

Betikoa ez noa errepikatzera: “euskara ez da eskola, euskaltegi edo euskara taldeena bakarrik”... Ala bai! Umeak D ereduari apurta eta geure artean espainolez lasai asko! Txakurrei euskaraz, baina “ponme dos cafés”, eta abar. Ez dot adibideekaz segituko. Katalanak gogoratuko ditut, haien inbidiatan nagoelako. Zelan bizi dabenean, zelan bizi diren katalanez. Eredugarri benetan! Badaukagu nondik ibili haien mailara ailegatzeko. Imaginatzen duzue Euskal Herrian Tele 5, eta TVE-2 lasai-lasai euskaraz emititzen haien programa gehienak? Ba han katalanez emititzen dabe, inongo hautsik harrotu barik.

Guk, oster, konplexu larregi dekoguz, edo espainola errezena dala guretzat eta, alperrena egiten dogu askotan.

Parkatu egiztaue beste gauzatxo bat esaten badot. Gura dogula nahiz ez dogula, alkar eragin egiten dogu, gehiengoak gitxiengoari irabazi egiten dotze, eta pentsa gura dot, gehiengoaren borondatea, borondatea besterik ez bada, behintzat, euskaraz bizitzearen aldekoa dala. Baina komunikabideen gehiengoak jendearengana ailegatzeko euskara ez badau erabiltzen, hau da, bere sosak irabazteko interesa ez bada euskara, hemen ez dago zer eginik. Gehiengoa euskara erabiltzen dabenean, seinale ona, orduan esan gurako dau Euskal Herrian euskaraz benetan bizi garela.

Horregaitik euskaraz bizi zareten edo garen guztioi eta ahaleginetan dabilen guztiari animo! Eutsi gogor erabiliaren arrauketeari, geure herriko hizkuntza osasuntsu bizi dadin eta bizi bedi!



BELEN GANA
(Irakaslea)

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Agur t'erdi, lagun

Oroitzen hasi naz, zu agertzen zaren argazki bati begira. Ezin sinistuta nabil zu bezalako mutil gazte alai batek herria horrela utzi behar izana. Denbora luzez egon naz buruari bueltak emoten, eta boli-grafoa hartzea pentsatu dot, lerro batzuk idazteko; bihotzak, bere taupadakaz, beste gauza asko egiteko esaten deust, baina une honetan daukadazan mugek ez deuste gauzatzen uzten.

Guztirako zenuen prestutasuna. Sukalderako zaletasuna be konpartitu dogu: gogoan daukadaz zuk egiten zenduzan bizkotxo goxo horiek, nahiz eta batzuetan norbaiti barre eragin (kar, kar). Gazte erakundean be ordu batzuk alkarregaz egin doguz, beste hainbat gazterekin. Bertan be utzi dozuz zure ekarpenak. Olatuak harrapatzen be nahiko ordu ematen zenduzan; olatuak nola harrapatu erakutsi gabe joan zara, zorretan zaude nigaz, eh? Ezinezkoa jakun zugaz barrerik ez egitea: guztirako zenuen broma edo txiste. Hainbat gauza ekartzen dodaz oroimenera, baina denak ezin idatzi paper zuri honetan.

Beno Gaizkotas, agurtzea besterik ez jat gelditzen. Espero dot orain arte bezala ibiltzea bizitza berri horretan. Nire koadrilako Enekogaz topatzen bazara, emaiouzu besarkada handi bat nire partez.

Gero arte, mutil! Zaindu burua!

*Arkaitz Hormaetxe Bilbao
(Alcala Mecoko espetxetik)*

Kantauri Itsasoaren altzoan

Sopelako hondartzara joateko deia jaso dugu Oxangoitin, atzo istripuz hildako Gaizkari agur egiteko.

Ettxekoek dakarten errautesak hartze-ko prest daude berrogeita hamar surflari, eta olatuen doinu erritmikoaren laguntzaz badoaz itsas barrurantz.

Hondartzan gaudenok ere eurekin batera itsasoratzea gura dugu, begirada luzatuz.

Ur sakonetara heldu direnean korru handia osatu dute eta elkarri eskuak harturik, gora jaso dituzte, lorez inguraturiko Gaizkaren errautesak itsasoan zabalduz.

Oxangoitin horrela gogoratuko zaitugu: itsasoren altzoan kulunkan, olatuekin jolasten inoiz galduko ez duzun irribarre gozo horrekin. Eta mendira goazenean irrintzi egingo dugu, ea zauden lekutik entzuten diguzun.

Oxangoitiko lagunak

Norbaitek nor zaren galdetuko balu, erantzuna argia izango litzateke: aingerutxo bat. Zure ile hori kizkurak eta aurpegi zuri irribarretsua ez ligukete beste erantzunik emateko aukerarik emango.

Hainbeste maite zenuen motorrak gure aldamenetik eramane zaitu, betiko, beste bidaia zoragarri batera. Bidaia ondo hasi da, ezta? Zuk nahi izango zenuen bezala. Itsasoak bidaia goxo batean kulunkatuko zaitu eta ezagutu nahi zenituen hondartza zoragarrietaraino eramango zaitu. Baina, lasai egon, ez zara bakarrik egongo. Leku guztietako surflariak zure zain egongo


Gero arte, Gaizka

dira, olatu polit eta handienak zuretzat gorde dituzte! Han, hemen bezala, denak geldituko dira zure irribarrearekin maiteminduta.

Gu, momentuz, hemen gelditzen gara. Oxangoitin. Zuk emandako alaitasun eta bizitasunak altxor bat bezala gordeko ditugu. Egunen batean, berriro elkartzen garenean, zure madalena eta pastel goxoak elkarrekin dastatuko ditugu, bale?

Bidaia ona izan eta jaso itzazu musutsu eta besarkada beroak, laztana.

Eunate Garcia Goikoetxea



Euskal Herriko txakolindegirik handiena inauguratu da Larrabetzun



Irailaren 20an, Bizkaiko Txakolina ekoizteko Euskal Herriko zentrorik handiena inauguratu zen Larrabetzuko Legina auzoan. Inaugurazioan jendetza handia batu zen eta haien artean, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldu Nagusia eta Tomas Ordeñana Larrabetzuko alkatea izan ziren, besteak beste.

Azurmendi jatetxeak eta Iturrialde txakolindegia osatzen dute konplexua. Txakolindegia 2.000 metro koadro ditu eta teknologiarik berrienekin hornitu dute. Instalazioa 650.000 botila txakolin egiteko prestatuta badago ere, aurrerantzean zifra

hori miloi bat litroa arte handitu ahal izango da. Etxeko ardoak –Gorka Izagirre eta Aretxondo- ekoizteaz gainera, haien txakolina bertan egiteko aukera ematen zaie Bizkaiko Txakolina jatorrizko deitura duten ekoizleei. Beste alde batetik, txakolindegia gainean dagoen beste horrenbesteko azaleran Eneko Atxa itzel handiko sukaldariak hartu du jatetxearen zuzendaritza.

Ibarretxeren esanetan, hau bezalako proiektuek Euskadi gero eta erakargarriagoa egiten dute, “kultura, gastronomia eta enpresa arloei dagokienez, gizarte garatuenen parean jarritz”.

Andersenena lana, Zamudioko liburutegian

Aurten 200 urte beteko dira Hans Christian Andersen idazlea jaio zenetik; bigarren mendeurrena ospatzeko, dani-markarrak idatzitako ipuinen erakusketa jarriko da ikusgai Zamudioko liburutegian, urriaren 3tik 8ra bitartean, Dar-Dar konpainiaren eskutik. Andersenena hamar ipuinek eta horietan oinarritutako hamar irudik osatzen dute erakusketa hori. Irudiak Lorena Martinez Oronozek egin ditu.

Erakusketa honetan idazlearen lan oparoa eta paregabea hurbildu nahi zaie haurrei. Paneletan eskegiko diren irudi eta ipuinak ikusi eta irakurri ondoren, lanerako txoko bi edukiko dituzte umek.

Erakusketari amaiera emateko, Aitona Balentinek ipuinak kontatuko ditu urriaren 8an.

Testua: Amagoia Guezuraga

Eskulangintza eta Gastronomia Azoka, Loiun

Urriaren 16an, domekan, Eskulangintza eta Gastronomia Azoka egingo da Loiun. Azokaren XIII. edizio honetan, aurrekoetan bezala, hainbat saltoki ipiniko dira Herriko Plazan eta inguruetan. Bertara hurbildu direnek baserriko produktuak eta artisau lanak ikusi eta erosteko aukera izango dute.

Zuazoren hitzaldia Larrabetzun

Urriaren 27an, iluntzeko 8etatik aurrera, Koldo Zuazo hizkuntzalariaren hitzaldia izango da, Larrabetzuko Anguleri kultur etxean, Arrekikili euskara elkarteak antolatuta. Zuazok Euskara batua, Ezina ekin ezina liburua aurkeztu, eta gaiaren gaineko berbaldia egingo du.

Merkataritza Astea, Derion

Urriaren 15etik 23ra bitartean Merkataritza Astea izango da Derion, bertako Dendari eta Zerbitzuetako Elkartek antolatuta. Merkataritza Astearen barruan ekintza nagusi bi egingo dira. Horrela, bada, hilaren 15ean, goizean, txakolin eta herriko dendetako produktuen dastaketa izango da Adintsuen Etxean aurrean. Umeen-tzako txu-txu trena ere egongo da. Eta urriaren 22an Expoderio ekitaldia egingo dute frontoian, arratsaldeko 6etatik aurrera. Bertan dendetako produktuen erakus-keta eta moda-desfilea izango dira, besteak beste. Horrezaz gainera, 300 euroko txekoa zozketatuko dute. Irabazleak Derioko den-detan gastatu ahal izango du diru hori.



Aisialdiko begirale ikastaroa

Zamudioko Udalak aisialdiko begirale izateko ikastaroa antolatu du. Ikastaroak atal bi izango ditu; Begirale I eta Begirale II. Eskolak Zamudion bertan eta Izurtzako aterpetxean emango dira; urte bian emango dira, hil bakoitzean asteburu batez. Begirale I atala 2005eko urritik 2006ko maiatzera bitartekoa izango da; eta Begirale II atala, 2006ko urritik 2007ko maiatzera bitartekoa. Ikastaro osoa euskaraz emango da. Interesa dutenek urriaren 4a baino lehen eman behar dute izena Zamudioko Udaletxean; argibide gehiago nahi izanez gero, bertan eskura daitezke.

Berbalagun proiektua, martxan Derion

Euskaldunak eta euskalduntzen ari direnak harremanetan jartzeko proiektua jaio da Derion, bertako Udalak, Tximintx euskara elkarteak, Txorierriko udal euskaltegiak eta Txepetxa AEK-k bultzatuta.

Proiektuak euskaldun berriak eta zaharrak asteen bi orduz batzea du helburu, euren artean euskara modu naturalean erabiltzeko. Taldeak edota bikoteak osatzeko orduan bakoitzaren adina, zaletasunak eta ordutegiak hartuko dituzte kontuan, besteak beste. Horrezaz gainera, dinamizatzaile batek euren gainera kontrola eta segimendua egingo du, sor daitezkeen arazoak konpontze aldera edo bikoteei laguntza emate aldera.

Berbalagun proiektuan parte hartzeko izena eman daiteke irailaren 30era arte hurrengo helbideotan: Tximintx euskara elkartearen (Derioko KZgunean egunero 17:00etatik 19:00tara edo 635753595 telefonoa, baita tximintx@euskalerria.org edo derioberba@euskalerria.org helbideetan ere), Derioko udal euskaltegian (Herriko plaza, 94 4540062 telefonoa) eta Txorierriko AEK-an (Gorbeia 5, 944543967 telefonoa).

Izen ematea doanekoa da eta euskaldunei oparitxoak emango zaizkie ikasturtean zehar.

Testua: Tximintx euskara elkarte



Iraultza futbol taldearen 25. urteurrena.– Zamudioko Iraultza futbol taldeak 25 urte bete ditu denboraldi honetan, eta jokalariek jai handia egingo dute urriaren 8an, urteurrena ospatzeko. Egun osoan, besteak beste, ondorengo ekitaldi

hauek izango dira: futbol partida, trikiti-poteoa, herri bazkaria, mus txapelketa eta Ene Bada, Urgabe eta beste talde biren kontzertuak. “Egun horretan, taldetik pasatu diren lagun guztiak batzea nahi dugu”, esan digute Iraultzatik.

Umeengan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko agendak



Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 965 irakurketa agenda banatu ditu Txorierriko liburutegien artean. Agendak 6 urte eta 12 bitarteko gazteei emango zaizkie, irakurtzeko zaletasuna pizteko. Diseinu aldetik oso erakargarriak dira eta irakurritako liburuak bertan lantzeko aukera izango dute umeek, marrazki zein idazlantxo bidez. Liburutegietan antolatutako ekintzetan parte hartzen duten hurrei agenda bana emango zaie.

Uzta Eguna, Lezaman

Urriaren 2an, 10:00etatik 14:30era bitartean, Uzta Eguna 2005 ospatuko da Lezaman. Bertan 50 bat postu jarriko dira eta Txorierriko txakolina dastatzeaz gainera, Euskal Herriko nekazaritza-ekoizleen produktuak erosteko aukera izango da: barazkiak, gazta eta gozokiak, besteak beste. Goizean zehar umeentzako jolasak antolatuko dira eta uzta berriaren inguruko ekitaldi bat eta bertso-saioa ere egingo dituzte. Beste alde batek, Lezamako Laiak Emakumeen Elkartek postua izango du lehendabiziko aldiz azokan, taldearen helburua eta ekintzak ezagutzera emateko.



Euskara ikastaroetarako dirulaguntzak, Euskara Zerbitzuaren eskutik

Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du 2004-2005 ikasturtean egindako euskara ikastaroetarako. Deialdian parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da Txorierriko udalerrietariko batean gutxienez bi urtean errolatuta egotea eta 16 urtetik gorakoa izatea.

Euskara ikastarotzat hartuko dira euskaltegiaren ematen diren urteko ikastaroak, ikastaro trinkoak zein barnetegietako ikastaroak; Txorierrikoek eta homologatuek lehentasuna izango dute. Ikasleak ikastaroan eman diren ordu guztien %90eko asistentzia egiaztatu behar du. Norbaitek aurretik dirulaguntza jaso badu ikastaro bat egiteko, eta ikastaro hori berriro eginez gero, ezin dezake maila horretarako dirulaguntzarik berriro eskatu. Ikastaroa egin duen euskaltegiaren egiaztagiria aurkeztu behar du.

Ikasleei ordaindutako matrikularen %25etik %50a bitartekoa emango zaie, eta %50etik %75a bitartekoa, langabezia badaude. Oinarrizko errenta edo larrialdi sozialetarako laguntza dutenek %75etik %100a bitartekoa jasoko dute. Eskatera orriak udaletxeetan eskura daitezke eta Euskara Zerbitzuan edo udaletxean bertan aurkez daitezke, urriaren 1etik 31ra bitartean.

Aurtengoa euskara ikastaroetarako dirulaguntza ematen den bigarren urtea da eta, Euskara Zerbitzutik azaldu zaigunez, Txorierriko udalerrri guztietatik jaso zituzten eskaerak iaz. Guztira, 77 dirulaguntza eman zituzten.

Pereirako errealitatea hurbilago



Fermin Garin Loiuko kultura zinegotziak Pereirako Las Brisas herria (Kolonbia) bisitatu zuen abuztuaren 2tik 7ra bitartean. Udalak eta Behar-Bidasoa gobernuz kanpoko erakundeak akordio bat sinatu zuten, Behar-Bidasoak herri horretan duen proiektuari diruz laguntzeko. “Lokal bat behar zuten, emakumeen zentroko tailerretan egindako artikuluak (zapatak, panpinak, erlojuak, etab.) saltzeko, eta lokal hori erosten lagundu diegu”, azaldu digu Garinek, “Beste alde batetik, urriaren 16an azoka izango dugu herrian, eta stand bat jarriko da, Kolonbiatik ekarritako eskulan

tuzte lanerako prestakuntza ematen duten lantegiak, umeentzako eskola, jantokia, liburutegia...”. Garinenek dioenez, mojen hurrengo helburua sendaketa-zerbitzua jartzea da, izan ere, bertako sanitatea pribatua da eta jendeak ezin du ordaindu. “Loiuko Udalak ahal duen guztietan laguntzen jarraitzeko asmoa dauka. Oraindik lan handia dago egin barik, eta lan hori guztia aurrera ateratzeko ezinbestekoak dira diru-laguntzak. Institutioek ez ezik herritarrek ere konprometitu beharko genuke arazoan, eta zelako mundua sortzen ari garen konturatu”.

batzuk saltzeko”.

Zinegotziak, beraz, Pereirako egoera ezagutzeko aukera izan zuen. “Gatazka armatuak indigenak euren herriak utzi eta hirira alde egitera behartzen ditu. Horrek arazo larriak sortu ditu hirietan. Testuinguru horretan goraipatzekoa da zentroko mojek egiten duten lana. Martxan jarri di-

San Migel, Lauroetan

Irailaren 29tik urriaren 2ra bitartean, San Migel jaiak ospatuko dira Lauroetan. Hona hemen bertako jai batzordeak prestatu duen jai egitaraua:

Irailaren 29a, eguena

11:00: Kalejira
12:00: Meza
12:45: Briska Txapelketa eta Urganixora jaurtiketa
19:00: Tiragoma txapelketa
20:30: Bertsolariak: Igor Elortza, Aitor Mendiluze, Etxahun Lekue eta Maialen Lujanbio
22:00: Erromeria

Urriaren 1a, zapatua

09:00: Lauroetako I. Mendi Ibilaldia
16:30: Pilota partidak
19:30: Umeentzako jolasak
20:00: Erromeria, Elorrio taldearekin
21:15: Saiheski eta txistorra jana
22:30: Erromeria, Elorrio taldearekin

Urriaren 2a, domeka

10:30: Kalejira
11:00: Meza
12:00: Artzain Txakurren XXII. Erakusketa
13:30: Adiskidea fanfarrea
18:00: Loiuko dantza taldearen agerraldia
19:00: Idi probak
21:00: Ahuntzaren zozketa
22:00: Erromeria
Egun osoan, umeentzako puzgarriak: gaztelua eta rokodromoa

“Presioa sumatu genuen final egunean”

Abuztuaren 14an Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketa izan zen Zeanurin. Aurten 25. edizioa bete da eta Larrabetzuko Jon Uria eta Gernikako Mikel Urrutia, Bizkaiko bikoterik onena, bertan izan ziran.

Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Lutxi Silvano

Txapelketan seigarren postua lortu zenuten, hala ere, aspalditik ez zen Bizkaiko bikoterik egon...

Pozik gaude, ez genuelako ezer lortzeko inongo itxaropenik. Lehendabiziko txapelketa izan da guretzat eta beldur apur batekin ibili ginen. Frogatzera joan ginen, besterik ez. Baina gure lana ahalik eta ondoen egiten saiatu eta emaitza ez da hain txarra izan.

Zelan ikusi duzue zeure burua txapelketan zehar?

Kanporaketa Zeanuriko Ipinaburu auzoan egin zen abuztuaren 25ean eta bertan 12 bikotek parte hartu genuen. Gure emanaldia azkena izan zen, iazko txapeldunek jo ondoren hain zuzen ere. Eta eurek utzitako maila ikusita, eszenatokira disfrutatzea ateratzea erabaki genuen, besterik ez. Inongo presio barik jo genuen eta oso ondo irten zitzaigun. Egia esan, hain ondo ateratzeak harritu egin gintuen. Egun horretan sei onenen artean sailkatu ginen, baina hasieran aipatu den moduan, bageneukan erantzukizun bat: aspalditik ez zen Bizkaiko bikoterik egon Txapelketan. Ez



dakigu zer espero zuen jendeak gurengandik, baina presioa sumatu genuen final egunean. Seigarren postua lortu genuen eta ez ginen pozik lotu plazan egindako lanarekin.

Meritua baduzue, txapelketa hasi baino aste bat lehenago ezagutu zenuten elkar...

Jon: Galdakaoko kontserbatorioko lagun batekin joateko asmoa nuen, baina huts egin zuen azkenean. Irakasleak Gernikako panderojole bat ezagutzen zuela esan eta

berarekin harremanetan jarri ninduen, baina kanporaketa baino bost egun lehenago arte ez genuen elkar ezagutu, azterketak direla-eta. Buru-belarri ibili ginen bost egun horietan zehar, elkarrekin jotzen, gure kabuz, etxean... Eta primeran konpondu naiz Iñakirekin. Uste baino hobeto, izan ere bera panderojole “moderno” da eta ni, berriz, trikitilari “tradizionala”. Baina arazo barik, Mikel artista galanta delako.

Eta hain ona izan den elkar ulertzea, ezen hemendik

aurrera elkarrekin jotzeko asmoa duzue, ezta?

Bai, datorren urtean Txapelketan berriro parte hartzeko asmoa dugu eta horrezaz gainera, bikotea osatu nahi dugu plazarik plaza aritzeko, emanaldiak eskaintzeko eta abar.

Bizkaiko bikoterik onena izan zarete, tituluak moralezko txertoak dira?

Bai. Orain arte hobitzat izan dugu, baina titulua titulua da eta betiko izango duzu. Lanean jarraitzea animatzen zaitu.

Tonino Carotone, abeslaria

“Europar urakana heldu baino lehen espabilatu behar dugu”

Testua eta argazkia: Fernan & Fernando



Lezamako jaietan jo zuen Tonino Karotone abeslariari egin dio elkarriketa AIKOR! aldizkariak eta haxe da emaitza ikusgarria.

Talde punk bateko partaidea izatetik (Tijuana) edo rancheropunk (Kojon Prieto), divo italiarra izatera..., aldaketa gustukoa duzu?

Cagando duro taldean ere izan naiz. Barrikadaren abestiak kantatzen genituen, baita La Polla, RIP eta neure belaunaldiko jendearenak ere (35 urte ditut); musika kritikoa, librea.

Zer gordetzen du oraindik Tonino Karotonek (edo Antonio de la Cuestak)

izpiritu punk horretatik?

Droga eta garagardoaren mendekotasuna, askoz gehiago ez. Eta datorrena txarragoa da dagoena baino. Kaka zaharra da dena, potro birekin.

Mondo difficile lanarekin modan ipini zenuen italiar kantagintza, hemen eta han. Batzuetan esan izan duzu Italia zure bigarren aberria dela. Gaur egun, zelako harremanak dituzu herrialde horrekin?

Italiar taldeekin lan egiten dut bertan,

ederto ulertu naute Italian. Herria herria da leku guztietan. Inoiz ez nuen pentsatu surrealismoarekin eta hitz jokoekin ulertuko nindutenik.

Ironiaz kantatzen diezu amodioari, emakumeei, alkoholari, bekatuari... Probokatzeko gogoa?

Parrandan goazenean denok dugu probokatzeko gogoa, parranda gogoa.

Batzuek vintage-tzat (retromoderno) jo dute zure estiloa. Ados zaude hitz horrekin?

Ez nago ados inongo hitzekin, ezta besteekin ere. Bideta putamadrekoka da batzuetan, eta neskak ondo dotore geratzen dira. Lagunek Antoine La Nuit deitzen zidaten, Senegalekoek Toni Txojoles.

“Inoiz ez nuen pentsatu surrealismoarekin eta hitz jokoekin ulertuko nindutenik”

Me cago en el amor abestiarekin arrakasta lortu zenuen. Berdin pentsatzen segitzen duzu?

Kaka egiten dut zentzu fatalean; kalte egiten didana, goitik datorrena, goi mailakoa. Biraoak esanda hobeto sentitzen naiz, nahiz eta itsusia iruditzen zaidan.

Insumisión kanta (Kojon Prietorekin) himno bilakatu zen; zeu ere kartzelan egon zinen intsumisioa izateagatik. Gaur egun, nor edo zer desobeditu behar dugu? Zeri esan behar diogu ezetz, zure ustez?

Europar urakana heldu baino lehen espabilatu egin behar dugu eta atzetik sartzen dizkiguten isun horiek guztiak ez ordaindu. Zergak bakarrik ez, gehigarriak ere ordaintzen ditugu geure duintasunarekin berarekin. Artegira sartzen ari diren artxoak bezalakoak gara.

Zure bigarren diskoarekin, itzultzerik ez dagoela esan zenigun..., baina egongo da, ezta? Noizko hirugarrena?

Hirugarrena beti etortzen da bigarrenaren ostean. Nire inspirazioa ez dabil seriean, eta nik apurka-apurka itsasten ditut beti neure ideiak. Eta gero kanporantz irtengo dira. Artearekin ez da jolastu behar, nahiz eta sasoiak alderantziz etorri. Eta kontzertuaren amaieran gustura geratu banaiz, besteak ere gustura geratu direlako da.

“Eskolea 13 urtegez itxi neban, soloan lan egiteko”

Gaztea bai, baina atxinako gauzeak jakiteko grinagaz. Institutuko Prentsa Tailerreko Iera Hernandezek Larrabetzuko Natividad Santa Cruzei alkarrizketa egin deutso eta beragaz gogoratu ditu eskolako urteak.

Zelakoa zan zure eskolea?

Mahaiak lagun birentzako ziran eta alde bietan tinteruak egozan. Lehen tinteagaz idazten genduan: plumea busti eta gero idatzi. Andereñoa aurrean jesarriten zan, mahai handi baten, eta bertatik zuzenduten euskun: berak esaten ebana guk idatzi.

Zenbat urtegez joan zinan?

Zazpi urtegez hasi, eta hamairugaz amaitu neban. Bakarrik joaten nintzan, eskolea etxetik hur egoalako, orain Kultur Etxea dagoan lekuan.

Zer ikasten zenduen bertan?

“Primera cartillan” abezedarioa eta “Segunda cartillan” leiduten ikasten genduan. Beranduago barruan orriak ebazan “Camarada” eta “Pascuarin” karpeta batzuk. Gero, liburuakaz hasi ginan: “Grado preparatorio”, “Grado elemental” eta “Grado medio” (aritmetika, Espainiako historia, fisika, kimika, kultura...). Ez genduan etxerako debererik eroaten; eskolan bertan egiten genduzan lan guztiak. Andereñoak sumak-edo arbelean idatzi, eta gero guk urten behar izaten genduan, hantxe egiteko.

“Aste guztia arropa bardinakaz jantzita ibiltzen ginan, jertsei eta abarketa bardinakaz”

Zenbat ikasle zinien klasean?

Asko, 50 baino gehiago. Aste guztia arropa bardinakaz jantzita ibiltzen ginan, jertsei eta abarketa bardinakaz. Eta bata zuria eroaten genduan eskolan. Etxera joaten ginanean eskegita itxiten genduan bertan. Zapatuetan etxera eroaten genduan garbituteko.

Euskeraz ala erderaz egiten zenduen?

Eskolan erderaz eta katekesia euskeraz emoten genduan eleizan. Andereñoa Burgosekoa zan eta abadeetako bat Zornotzakoa. Beste abadea Dimakoa zan.

Zenbat ordutan egoten zinien eskolan?

Goizeko 9etan sartu, eta 12:00etan urtetan



Iera eta Natividad. Emakumeak 76 urte ditu

genduan. Etxean bazkaltan genduan, baina herritik urrin bizi ziranek urrian egiten eben. Ez genduan jairik eta eskolatik urten ondoren, etxera etorri eta olgau egiten genduan.

Zertara?

Erraira. Zazpi zatik osotatuko karratu bat egin eta harri bat botatzen genduan koadro batera. Koadrora saltoka joaten ginan, harria koitako erraiak zapaldu barik. Eta pikokara be bai. Palu eta piko bategaz palu bateri punta bi egin, eta urrin botaten genduan. Lehenengo koitan ebanak irabazten eban.

Zergatik itxi zendun eskolea?

Aitak esan eustan: “Tia Lorentza zahar egin da eta zeuk egin behar dozu lana behiakaz soloan”. Gero, josten ikasi neban eta bazkaria amamak erakutsi eustan: indabak bazkalduteko eta gauerako okelea patatakaz. Lantzean behin antxoak jaten genduzan. Pastorea etorten zanean gaztaia eukiten genduan postrerako.

Zer ikusi zendun gerrean?

Aireplanoak. Eta eskapau egin behar izaten genduan errefujio batera. Soldadu batzuk etorri ziran lo egiteko kuartu bat topetan eta bi lotu ziran gure etxean: bat

Otxandiokoa eta bestea Gorlizekoa.

Soldaduek zanja bat egin eben Vista Alegretik Bizkargiraino. Etxetik joan behar izan genduan, Lezamara. Egun gitxi batzuk korta baten emon genduzan behiakaz. Amama eta izeko bat etxean lotu ziran; ama eta hiru neba-arrebak Lezamara joan ginan eta aita Baskonian lotu zan lan egiten.


“Gerra garaian, egun batzuk korta baten emon genduzan behiakaz”

Etsaiak Lezamara etorri eta joan behar izan genduan handik: Olatzetik Artxandara arte, Santo Domingotik. Artxandan egin genduan lo, eta Bilboko San Francisco kaleko 4. pisu batera joan ginan hurrengo goizean. Dana amaitu zanean etxera bueltatu ginan gurdia eta behiakaz. Hortik aurrera dana pasau zan eta eskolan hasi ginan barriro.

Testua eta argazkia: Iera Hernandez

Alex Garrido, dantzaria

“Gero gerokoak”



Alex sei urte zituela sartu zen Gorantzailak Sondikako dantza taldean. “Lagunak euskal dantzen munduan hasi ziren... Eta nik ere egin behar!” Harrezkero, dantza eta dantza dabil hainbat plazatan.

Mutilek ez ei dute dantza egiten...

Egia esateko, mutil gutxi gara. Zergatik? Gustatzen ez zaielako edo lotsatzen direlako, beharbada. Dantza taldeetan neska gehiago izaten dira, baina mutiko asko ere bai.

Eta euskal dantzetatik zer da gehien erakartzen zaituena?

Mutilekin makila-dantza egitea gustatzen zait, gure arteko jolas modu zerbait delako... Baina, noski, nahiago dut neskekin dantzatu! (Kar, kar) Ez, ez... Izan ere, oso gutxitan egiten dugu eurekin batera. Nire ustez, dantza egitea oso dibertigarria da eta kirol apur bat egiteko ere balio dizu. Horrezaz gainera, leku berriak ezagutzeko aukera ematen dizu, agerraldiak herritik kanpo izanez gero.

Zaila da dantza, astialdia eta lana uztartzen?

Ez, entseguak astean behin egiten ditugulako. Beno, uda garaian, agian, bai: emanaldi gehiago izaten ditugu eta ondorioz, plan batzuk bertan behera utzi behar dira.

Mutikoei dantzak irakasten diezu. Zelan irakasle lanetan?

Primeran pasatzen dut. Baten batek buruhauste bat baino gehiago ematen dit, baina ondo ikasten dute orokorrean.

Entseguetan ikasten dena praktikara eramaten da, neskatan ibiltzen denean?

Uf! Jotaren bat dantzatzan dugu jaietan, baina ni ez naiz ibiltzen ligatzen, neskalguna badut eta.

Baina neskalguna ezagutu baino lehen...

Ez du emaitzarik! (Kar, kar) Nik ez nuen bera dantzatzan ezagutu.

Eta hurrengo egunean dantzatu behar izateak parrandan ibiltzeko astia kenduko du, ezta?

Zeure buruari diziiplina apur bat ezartzea komeni da; hala ere, gakoa da gauza biak ondo uztartzen jakitea. Denetarik egiteko denbora badago.

Zer deritzozu mutilek mutilen dantzak eta neskek neskenenak egin behar izateari?

Ez dakit. Bolada batean oso mutil gutxi izan ginen taldean eta neskek gure dantzak egin behar izan zituzten. Eta primeran! Hala ere, ahal denean tradizioa mantendu behar dela pentsatzen dut.

“Mundu guztia niri begira egoteak izugarri liluratzen nau”

Hamasei urte daramatzazu jendaurrean dantzatzan. Hasieran bezala errespetua ematen jarraitzen du?

Ez, nik ez daukat lotsarik! Erreberentzia eta kaxarranka dira gehien gustatzen zaizkidan dantzak. Eta aureskua! Hainbat aldiz dantzatu dut eta mundu guztia niri begira egoteak izugarri liluratzen nau.

Eta behar bezain altu altxatzen duzu hanka?

Orain arte ez dut kexarik jaso! (Kar, kar)

Ikasi gabeko dantzarik?

Bai, Lapurdiko dantzak ikastea gustatuko litzaidake... Eta laster areto-dantzekin ausartzeko asmoa daukat! Salsarekin, tangoarekin... Tabernetan dantzatu ahal izateko gero! (Kar, kar)

Duela gutxi Dantzari Eguna ospatu zen Erandion. Sasoi onean daude euskal dantzak?

Askoz hobeto egon litezke, baina, tira, bagoaz aurrera egiten. Dantzari Eguna bezalako jaialdiak izugarri gustatzen zaizkit, jendetza handia batzen delako eta dantzarien artean oso giro ona sortzen delako. Eta dantzatu ostean, erromeriara! Ikusleek ere erantzun ona izaten dute.

Dantzari, jubilatuta arte?

Ez, bizitza honetan badira beste lehentasun batzuk: lana, neskalguna... Beno, orain dantzaria naiz, gero gerokoak!

“Badaude futbola baino gauzak garrantzitsuagoak”



Azkenean, 30 urterekin, ailegatu zaio Gaizka Garitanori lehen mailan jokatzeko aukera. Iaz Levantera joateko aukera izan zuen, baina Eibarren geratzea erabaki zuen, familia zela eta. Aurten, ordea, ez du birritan pentsatu, eta Realeko eskaintza onartu du. Txorierritar bat Donostiako taldean aritzea arraroa izan daiteke, agian; hala ere, Garitanok normaltzat jotzen du: “gero eta normalagoa”, berak dioenez.

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza

Realak fitxatu zintuenean, fitxaketa hori eztabaidatua izan zen. Zer gertatu zen?

Ez zen ezer gertatu. Realeko eskaintza jaso eta ez nuen bi aldiz pentsatu. Proposamen bat egin zidaten eta baietz erantzun nien.

Fernando Lamikiz Athleticen presidentea esan zuen, nahi izan bazenu, aurreko talde zurigorrian jokatu zenukeela. Zergatik ez zinen Athleticera joan? Noren errua izan zen?

Errua? Inorena ere ez. Fernando Lamikizek ez zuen klausula ordaindu nahi, Eibarrekin neukan kontratua apurtzeko, eta hori onar-

“Ez nintzen Athleticera etorri, Lamikizek ez zuelako klausula ordaindu nahi”

tu egiten dut. Normala da. Baina ondoren esan duen guztia gezurra da. Berak ez zuen dirurik jarri nahi, eta geroago Realaren eskaintza jaso nuen; beraz, Donostiara joan nintzen. Kontua da Athleticen ez zuela

klausula ordaindu nahi.

Gustatuko zitzaizun Athleticen zu fitxatzea?

Ez, ez. Oso gustura nago Realean eta egunak joan, egunak etorri, gero eta harroago eta pozago sentitzen naiz Donostiara etorri izanaz.

Athleticen partida bat baino ez zenuen jokatu (1997an). Garai hartan zure osaba Anderrek taldea utzi behar izan zuen. Uste duzu zure abizenak eraginik izan duela? Kaltegarria izan da Athleticen Garitano deitzea?

“Ziur nago Athleticcek eskertuko duela Jose Luis Mendilibar entrenatzaile izatea”

Ez dakit, ez dut uste. Nire osabak ez zuen batere arazorik izan entrenatzailearekin. Zuzendaritzaren kontua izan zen, besterik ez.

Zer gogoratzen duzu Athleticen emandako garaia buruz?

Hamahiru urte nituela sartu nintzen Lezaman, eta urte asko eman nituen bertan. Oso pozik egon nintzen eta jende asko ezagutu nuen. Dena dela, urte asko pasatu dira, nik ere buelta asko eman ditut eta apur bat ahaztuta daukat etapa hori.

Zer sentitu zenuen San Mamesera itzultzean?

Ezer berezirik ez: nahiko kontzentraturik ibili nintzen. Egia esan, zelaira irten eta partida hasi bezain laster non zauden ere ez duzu jakiten.

Nola ikusi zenuen Mendilibarren taldea derbian? Zer egingo du aurtentzako?

San Mamesekoa Ligako lehenengo partida izan zen, baina taldea ondo ikusi nuen. Ez dakit zein postutan ibiliko den. Denborak esango du hori.

Mendilibarrekin Eibarren egon zinen eta ondo ezagutzen duzu. Nolakoa da?

Bai, ondo ezagutzen dut eta oso entrenatzaile ona da, nire ustez. Ziur nago Athleticcek eskertuko duela bera entrenatzaile izatea.

Lezamatik irten den etorkizun handiko jokalaria gazte bat, Fernando Llorente, aurrez aurre izan zenuen. Zer iritzi duzu Llorenteri buruz?

Oso jokalaria ona eta etorkizun handikoa da. Denborak esango du zer egiteko gauza

den.

Iskanbilak iskanbila, argi dago iaz gogoratzeko mo-duko urtea izan zela Eibarren. Espero al zenuten hain ondo ari-tzea?

Ez, ez genuen espero. Au-rrekontua hain txikia izanda, ez da batere erraza halako denboraldia egitea. Hasiera batean, ez genuen uste hain ondo ibiliko ginenik, baina denboraldiak aurrera e-gin ahala, tal-deak zein kalitate ona zuen erakutsi zuen.

Hala ere, ez zineten lehen mailara igo.

“Urte pozgarri asko eman nuen Athleticen, baina ia ahaztuta daukat etapa hori”

Kolpe gogorra izan zen?

Bai, lortzeko zorian egon ginen. Azken jardunaldira arte borrokan ibili ginen eta pena izan zen. Hala eta guztiz ere, gogoratzeko moduko urtea izan zela uste dut.

Athletic utzi eta gero, Lleida, Ourense, Eibar eta orain Real. Antza denez, berandu ailegatu zaizu lehen mailan jokatzeko aukera, ezta?

Ez dakit berandu izango den. Hogeita bederatzirterekin ailegatu zait abagunea, eta buelta asko eman eta hainbat partida jokatu ondoren, lortu dudana gehiago baloratzen dut, beharbada.

Nola edo hala, orain Real Sociedad taldean zaude. Nolakoa da lehen maila? Oso desberdina da?

Bai, desberdina da eta, logikoa den moduan, kalitate handiagoa dago. Dena de-la, partida gutxi jokatu ditut oraindik,



“Oso zaila izango da jendeak Karpin eta Alkiza ahaztea, baina daukadan guztia emango dut”, dio Gaizkak

*“Pena izan zen
Eibarrekin Lehen
Mailara ez igotzea,
baina gogoratzeko
moduko urtea izan zen”*

*“Buelta asko eman eta
hainbat partida jokatu
ondoren, lortu dudana
gehiago baloratzen dut”*

Fitxa pertsonala

- Izena:** Gaizka Garitano Agirre
- Jaioterria:** Derio
- Jaiotze-data:** 1975-07-09
- Egoera zibila:** ezkondua. Alaba bi ditu
- Ikasketak:** kazetaritza
- Taldeak:** Bilbao Athletic (1993-1996 eta 1997-1999), Lleida (1996-1997), Ourense (2000-2002), Eibar (1999-2000 eta 2001-2004) eta Real (2005)
- Debuta, Athleticen:** 1997an partida bakarra jokatu zuen, UEFAko Kopan, Genoan, Sampdoriaren kontra (1-2).
- Familia:** futbol munduan erabat murgilduta dago. Bere osaba Anderrek Athleticen jokatu du (275 partida) eta bere aita Angel “Ondarru” Alavesek inoiz izan duen talderik onenaren bigarren entrenatzailea izan zen, Jose Manuel Esnal “Mane”rekin. Lezaman bizi izan da, baina orain Zarautzen du bizilekua.

eta zaila da ondorioak ateratzea.

Nola ikusten duzu denboraldia? Zein da taldearen helburua?

Jende gazte asko dugu taldean. Denak Zubietatik irtendakoak dira eta esperientzia falta nabari da horren ondorioz. Ea emaitza onak lehenbailehen heltzen

buruaz hitz egin duzu, baina zein da zurea? Alkizak eta Karpinek utzitako hutsuneak betetzeko eskatu omen dizu Amorrortuk. Sarritan jokatzeko itxaropena izango duzu, ezta?

Zaila izango da jokatzeko. Horiek oso futbolari onak ziren eta urte asko eman zituzten



“Iaz ez nintzen Levantera joan, ez nuelako Euskal Herritik irten nahi”

ardura, baina gusturago nago zelai erdian, bai.

Ez zineten ondo hasi, Athleticen aurka 3-0 galdu ostean. Zer iritzi duzu partida horri buruz?

Merezita irabazi zuen Athleticek. Zelako partida egin genuen kontuan hartuta, emaitza gogorregia izan zen, agian. Baina ondo ikusi nuen Athletic.

Realak presidente berria du eta aro berri bat ireki da, antza denez. Berria izan arren, zuk ere aldaketarik antzeman duzu?

Lehen jendea nahiko urduri zegoen eta presidente berriak lasaitasun pixka bat ekarri du. Azken batean, emaitzak dira garrantzitsuena, eta onak badira ondo joango da gauza, baina onak izan ez badira, urduritasuna sortuko da berriro.

Iaz Levantera joateko aukera izan zenuen, baina azkenean ez zen erarik izan. Zergatik aurten bai Realera eta iaz ez?

Ez nuelako Euskal Herritik alde egin nahi, batez ere. Nire familia hemen egotea nahi nuen eta argi neukan ez nintzela hemendik kanpora joango. Futbola baino gauzak garrantzitsuagoak badaudela uste dut eta, Realak deitu zidanean, ez nuen birritan pentsatu eta onartu egin nuen.

Hiru urteko kontratua sinatu duzu Realarekin. Zer egingo duzu bukatutakotan?

Ez dakit zer egingo dudan. Kazetaritza karrera ikasi dut eta entrenatzaile txartela ere lortu dut. Futbolean urte batzuk ditut oraindik, eta bukatzen dudanean, auskalo!



Gaizkak “erdian” jokatu nahiago du, baina ez dio ardura atzean jokatu behar badu

Gaizka hurbiletik

Oso txikitatik beti zenbiltzan baloi batekin besapean, eta aita futbolaria izan zen bitartean entrenamendu guztietara joaten zinen. Hasieran Sestaora, geroago, aita Logroñesen ibili zenean, bertara joan zinen bizitzera amarekin eta Logroñesen eta Athleticen kamiseta erantzi barik ibiltzen zinen.

Futbolaria izan ez bazina, saskibaloijokalaria izango zinateke, honetan ere trebea zarelako eta oso gustukoa duzulako.

Musika kontuetan, Bruce Springsteen-en zale amorratua bazara ere, bere diskografia osoa daukazun arren eta, ahal izanez gero, bere kontzertuetara

joaten bazara ere, ez duzu inoiz albo batera utzi euskal musika.

Euskaltzalea zaitugu beraz, Gaizka, eta hor ikusiko zaitugu Ibilaldian, Kilometroetan... Edo bertso txapelketetan, urrunetik etorri behar baduzu ere, zure bertsolari garaia eta senari jarraituz, bertsotan ere trebea zaitugulako eta zuek datorkit niri ere bertsolaritzarako zaletasuna.

Azkenik, pertsona moduan apala zara oso eta luxuzko autoak maite beharrean, alaba biak eta emaztea dituzu bihotzean. Horregatik, Gaizka, anaia baino ere du zara niretzat.

Ortzi Garitano

Metalak Loiu hartu du

Urriaren 1ean, Oktober Underground Fest jaialdia izango da Loiu, eta bost metal talde arituko dira bertan: Hopelessness, Dark Faith, Cerebral Effusion, Numen eta Misanthrope. Festibalak bigarren edizioa beteko du aurten, eta Asier Bilbaok jakitun ipini gaitu.

Testua: Itxaso Marina

Iaz jaialdiaren lehen edizioa egin zenuen. Nola sortu zen ideia?

Lagun batzuen ideia izan zen. Alboko herrietan ez da musika mota honetako kontzerturik antolatzen, eta jaialdia egitea pentsatu genuen. Udaletxera jo, eta era honetako kontzertuak antolatzeko ohiturarik eduki ez arren, laguntza emateko prest agertu ziren.

Baina zergatik Loiu?

Ba, geure herria delako eta jaialdia bertan egin nahi dugulako, Txorierri mailan zer-bait antolatzearren. Horrezaz gainera, Loiu eman zitzaigun egiteko aukera, eta Bilbo inguruan edozein gauza egitea askoz hobe da, jende gehiago batzen da eta.

Loiu ez da oso ondo komunikatuta dagoen herria...

Bai, eta arazo horrek atzera bota zituen batzuk iaz. Kontzertuen ostean, Bilborako autobusa jarriko dugu aurten. Hiru bidaia-edo egingo ditu.

Udaletik laguntza jaso duzuela esan duzu. Beste lekuetatik?

Soinu eta edari enpresa batzuek lagundu digute beharrezko gauzetan: txosna, soinu ekipoak, edaria... Diskoetxe underground batzuek ere promozioak egin dituzte eta fanzine batzuek jaialdiaren berri eman dute.

Iazko jaialdiak izandako arrakastak bigarrena antolatzera animatu zaituzte. Egin lehenengo jaialdi horri buruzko balorazioa.

Ondo atera zen orokorrean. Arazo bakarra pilotalekuan egin behar izatea izan zen, soinu aldetik ez delako lekurik aproposena horrelako kontzertuak egiteko. Baina beste alderdiei dagokienez, oso ondo irten zen. Herriko jendeak primeran hartu zuen jaialdia, ez zen kezarik egon, eta taldeak ere oso pozik irten ziren. Pilotalekuan 250 lagun inguru bildu ginen. Hasierak zailak izaten dira beti, eta guk apurka-apurka joan nahi dugu. Ez dugu festibal erraldoia egiteko asmorik.

Aurtengo jaialdia ere pilotalekuan izango da?

Ez, Udaletxearen osteko landan egingo dugu. Bertan jarriko dira, besteak beste, karpa bat, txosna bat eta CDak saltzeko tokiak. Sarrera-txartelek 10 euroko prezioa



Misanthrope.— Ikusminik handiena sortuko duena. Metal Extreme taldea 1989an sortu zen eta diskografia oparoa dute merkatuan. Frantsesen lan berriaren izena *Metal Hurlant* da.

“Misanthroperen kontzertua estatuan emango duen lehenengoa izango da eta jendetza handia ekarriko du Iparraldetik, Zaragozatik eta Bartzelonatik”

“Ez dugu nahi jaialdi handirik. Lagunak batu eta hemengo taldeen lana ezagutzera ematea, besterik ez dugu nahi”

dute eta web gunearen bitartez (www.drownscream.com) edo jaialdian bertan eros daitezke. Ea 350 bat lagun batzea lortzen dugun! Beno, zenbat eta jende gehiago etorri, hobeto... Baina jende gehiegi etortzeak lan gehiago egitera

behartzen du: azpiegitura gehiago, denbora gehiago, laguntzaile gehiago... Eta orain ez dugu ez dirurik, ez astirik.

Nobedaderik, aurtengo edizioan?

Misanthrope Frantziako taldeak joko da. Zortzi lan plazaratu dituzte eta oso ezagunak dira. Euskal Herrian eta estatuan emango duten lehenengo kontzertua izango da eta jendetza handia ekarriko du. Badakigu Iparraldetik, Zaragozatik eta Bartzelonatik ere etorriko dela jendea. Beste alde batetik, Defleshed Suediako taldea ekartzeko asmoa genuen, baina huts egin dute azkeneko momentuan, hegaldiek arazoak izan dituztelako. Hala ere, interes handia erakutsi dute eta datorren urtean jaialdian parte hartzea espero dugu. **Atzerriko taldea ekartzea apustu handia izan da.**

Bai, eskatu digutena onartzeko modukoa izan da eta hemen izango dugu. Atzerriko taldea ekartzea jendea erakartzeko era bat da, jaialdiaren helburu nagusia Euskal Herriko taldeak bultzatzea baita. Eta, jakina, talde horiei ere dirua ordaintzen saiatuko gara, hainbat gastu dituztelako.

Eta zer topatuko du Loiuraino hurbilduko den jendeak?



Euskal Taldeak

Numen

Talde gipuzkoarrak euskal historia, mitologia eta kon-
daira ilunetan bilatzen du inspirazioa. 1997an osatu zen
eta lau disko kaleratu dituzte: *Basoaren Semeak*, *Jarra-
Beza Kondairak*, *Galdutako Itxaropenaren Eresia* eta *Haize
Sorginduen Intziriak*.

Hopelessness

Hainbat taldetatik (Unholy Pain, Ihes-Indar eta
Hopellessness) etorritako musikariek osatua, Zumarra-
gako death metal melodiko taldeak 2003. urtean garba-
tu zuen *Paradise Of Sin* lehenengo maketa.

Cerebral Effusion

Bizkaiko death metal taldea 1997an sortu zen. Lan bi
plazaratu dituzte: *Violence In Motion* eta *Immortal
Cemetery*.

Dark Faith

Amurriotik datorkigu black satanic fast metal talde hau.
1998. urtean osatu zuten eta lan bi dituzte: *The Sentence
Of Satan* eta *Storm Of Hatred And Anger*.

Metalaren arloan murgiltzen diren hainbat
talde. Batzuek lan berria aurkeztuko dute
eta beste batzuek taldekide berriak.
Esaterako, Numen eta Cerebral Effusion
taldeek aspaldi da ez dutela Euskal
Herrian jo, arazo batzuegatik.

Jaialdia Loiu geldituko da betiko?

Horri ezin diot erantzun. Datozen urteetan
berriro antolatzekotan, argi daukagu egun
batekoa izango dela, sei talde arituko dire-
la eta horietako bat edo bi atzerritarrek
izango direla; beste guztiak Euskal
Herrikoak. Lehen esan dudana bezala, ez
dugu nahi jaialdi handirik. Nahi duguna
da lagunak batzea, hemengo taldeen lana

ezagutzera ematea eta jendeak jakitea urri-
ko lehenengo asteburuan Loiu metal
jaialdia dagoela. Besterik ez.

**Gernikan ere jaialdia izan zen abuztuan
eta datorren urtean berriro egiteko asmoa
dute. Loiukoa metaleko bigarren zita
inportantea bilakatuko da?**

Alemanian, adibidez, jaialdi bi daude.
Bata oso festibal erraldoia da eta besteak
jende gutxiago batzen du. Metalway anto-
latu zutenean konparaketa hori egin
genuen, baina ez dakit... Gure helburua
bestelakoa da: nahi ditugun taldeak ekarri
nahi ditugu; ez jenderik gehien erakarriko
dutenak.



“Padela ez da pijoan kirola”

Duela gutxi modan jarri zen eta gero eta zale gehiago ditu. Esmaspadel kluba 2003. urtean ireki zuten Zamudioko Torrelarragoiti poligonoan eta egunero 150 lagun pasatzen dira bertako instalazioetatik. Eloi Arriolak azalpenak eman dizkigu.



Zergatik ireki kluba Zamudion?

Hainbat arrazoiengatik. Lehenengo eta behin, klubaren estruktura eta padelean aritzeko beharrei erreparatzen badiegu, zaila delako hau bezalako nabe bat topatzea; ez dago aukera handirik. Eta beste alde batetik, enpresa zein gizarte mailan Txorierri indarberritzeko proiektua ezagutzen genuelako. Biak batu, eta Zamudio aukeratu genuen kluba irekitzeko.

Zer nabarmenduko zenuke instalazioetatik?

Instalazioa bera, guztiz itxia delako. Horrek abantaila asko ematen ditu jolasteko orduan: haizetik babesten gaitu, euritik, eguzkitik... Pistetariko bat guztiz kristalezkoa da eta alde estetikoaz aparte, edozein lekutik uzten dizu partidak ikusten. Gainera, kafetegia aurrean dago: lasai-lasai zerbait har dezakezu, partida ikusten duzun bitartean...

Dena dela, ni ez nintzateke instalazioekin geldituko, baizik eta bazkideei ematen diegun zerbitzuarekin. Padelean aritzeko lau pertsona behar dira eta bazkideak ez ditu beti hiru lagun partida egiteko. Guri esan, eta partida hori antolatzeko ardura hartzen

dugu. Bihar, arratsaldeko 6etan, padel partida egin nahi baduzu, ia ziurrena egitea da.

Zenbat langile zarete?

Bederatzi; lau irakasleak dira. Eta irakasle horien prestakuntza-maila nabarmenduko nuke: ez dut uste Euskadin gureak bezain irakasle kualifikaturik dagoenik. Ematen ditugun klaseak oso onak dira, nire iritziz.

“Irakasleen prestakuntza-maila nabarmenduko nuke: ez dut uste Euskadin gureak bezain irakasle kualifikaturik dagoenik”

Zein motatako ikastaroak ematen dituzue?

Goizez, padelean hasteko ikastaroak ematen ditugu eta aipatzekoa da emakumezkoak etortzen direla gehienbat, nahiz eta beraiei espreski zuzenduta ez egon.,

Instalazioak

- Bost pista estali (bat kristalezkoa da)
- Gimnasioa
- Partiden antolaketa
- Aldagela (guztiz hornituta: lurrina, bizarra egiteko aparra, gela...)
- Jacuzzia
- Vaporium
- Kafetegia
- Kirol denda
- Aparkaleku pribatua
- Spining
- Umeentzako astialdiko zerbitzua asteburuetan

Ordutegia

- Astelehenetik larunbatera: 10:00-23:00
- Igandeetan: 10:00-15:00

Telefona: 94 452 21 77
www.esmaspadel.com

Horrezaz gainera, hobekuntza-ikastaroak ere badaude (astelehenetik ostegunera bitartean, 10:00etatik 13:00era). Arratsalde, maila altuagoa dutenentzako ikastaroak –banakakoak zein taldekoak– egiten ditugu eta ostegunetan umeei ere ematen zaie eskola. Larunbatetan, klubeko taldeek goizez entrenatzen dute eta umeei arratsalde hartzen dute txanda. Hogei umek osatutako taldea da hori.

Izan ere, klubak kirol-lehiaketetan ere parte hartzen du...

Bai, emakumezkoen zein gizonezkoen taldea dugu eta biak daude Euskadiko lehenengo mailan. Gizonezkoen taldea Euskadiko lau ekiporik onenetariko bat da.

Eta lehiaketarik antolatzen duzue?

Hiru lehiaketa mota egiten ditugu: enpresen artean, bazkideentzat urtean behin eta lehiaketa ofizialak Euskal Federakundearekin batera. Hori bai, txapelketa gehiegi ez egiten saiatzen gara, bazkideei pistak ez kentzeko.

Zein ekipaje behar da padela praktikatze-ko?

Kirol-arropa, pala bat, bolak... Klubeko dendan ekipaje osoa eros daiteke, baina ez

dugu alokatzen. Baten bati pala ahaztuz gero, bat uzten zaio eta ez du ordaindu behar... Kirol honetarako kuriositatea duen edonor gurera lasai asko etor daiteke: ordu erdian pista bat erabiltzen utziko diogu eta gure irakasleren batek edozein zalantza argituko dio.

Zein motatako bazkideak dituzue?

Denetarik. Hasiera batean Parke Teknologikoko bezeroak izango genituela gehienbat pentsatu genuen, baina egia esan, denetariko jendea etortzen da guera: txorieritarak, Bilboko lagunak, txandaka ibiltzen diren langileak...

Modan jarri zenean, kirol elitistatzat hartu zuten batzuek. Padela zaleak bereganatuz doa?

Bai, eta mundu honetan murgiltzen garenek ez dugu inoiz zalantzarik izan horretan. Eta askok kirol elitistatzat hartzea deigarri gertatzen zitzaigun. Gaur egun, udal kiroldegi guztiek padel pistaren bat dute eta nahi duen guztiak praktikatu ahal du. Are gehiago, guk kaleko kiroltzat daukagu, izan ere, padela Argentinan sortu zen eta bertan pistak kaleetan zeuden. Oso metro gutxi behar dira kirol hau praktikatzeko, ekipajea ez da garestia... Duela gutxira arte, padela pijoekin lotzeko interesa zegoela zirudien, baina ez da horrela.

Zein onura ekartzen digu padelak?

Garrantzitsuena hau da: lau pertsonaren artean praktikatzen da eta horrek lagun berriak ezagutzen laguntzen dizu. Oso kirol erraza da, dibertigarria, edozein adinekin praktika daiteke eta estresa kentzeko egoki-egokia da... Eta gorputzari dagokionez, atal guztiak lantzen dira: besoak, hankak, bizkarra...

Etorkizunerako erronkarik?

Umeentzako astialdiko zerbitzua berri eta solariuma jarri nahi dugu. Horrezaz gainera, beste pista bat eraikitzeko asmoa daukagu. Kanpoan egingo da eta harmai-



Kafetegitik partidak ikusi ahal dira, kafetxo bat hartzen den bitartean

“Oso kirol erraza da, edozein adinekin praktika daiteke eta estresa kentzeko egoki-egokia da”

lak izango ditu, ziur asko.

Beste alde batetik, gure irakasle bat –Matias Diaz- 10. postua du munduko padel jokalaririk onenen artean eta txapelduna izan da Argentinako selekzioarekin. Diaz balio erantsia da kluberako, nire ustez. Eta horri lotuta, munduko jokalaririk onenak ekartzen saiatuko gara, masterrak egiteko eta kirol hau jendeari hurbiltzeko entrenamendu berezien eta erakustaldien bidez. Halaber, nazioarteko lehiaketaren bat ekartzearena aztertzen gabiltza.



Spinning zerbitzua ere eskaintzen da klubean

“Hitz politetatik ekintzetara pasatu behar dute politikariek”

Egun zoragarria izan zen Lezaman ekainaren 11n, izan ere bertako Oxangoti kultur elkarteak eta herrian bizi diren boliviarrak senidetasun-jaialdia antolatu zuten, dantza, herri kirol, bazkari eta guzti. “Lezamarrek herrian bertakotu egin gaituzte. Oso pozik gaude”, esan digute Nemesiok eta Adelaidak.

Testua: Itxaso Marina

Nola sortu zen jaialdia egiteko ideia?

Lezaman bizi diren boliviarrak Oxangoti tabernatik ibiltzen hasi eta bertako jendea ezagutu zuten: “Ba, nire herriko janari tipikoa prestatuko dizut”, “Eta nik ere egingo dizut... Aizu, zergatik ez senidetasun-jaialdi bat antolatu?” Eta horrela hasi zen kontua. Egun ahaztezina izan zen eta, harrezkero, boliviarrak ez dute herritik alde egin nahi.

Zein da zuen herriaren egoera?

Bolivia oso herri aberatsa da –urrea, zilarra, merkurioa, petrolio, egurra...-, baina politikariek ez dakite horietaz ondo baliatzen. Gaur egun daukagun arazorik larriena hidrokarburoarena da: duela urte batzuk Estatu Batuei, Argentinari eta Espainiari saldu zizkien eta orain berreskuratu nahi dira, baina ezinezkoa da. Boliviako egoera etsigarria da: herria geldirik dago, leku askotara ez da janaririk heltzen, ez dago lanik, ez dirurik... Eta jendeak bertatik alde egitea baino beste erremediorik ez du.

Zergatik etorri Estatu Espainolera?

Hizkuntzagatik, batez ere. Espainia “madre patria”tzat daukagu, baina bertara ailegatu eta hori gezur hutsa dela berehala konturatzen gara. Euskal Herrian laguntza gehiago jasotzen dugu instituzioetatik eta laguntza horiei esker familia ekar dezakegu. Osterantzean, ezinezkoa izango zen. Estatu Espainolean 40.000 bat boliviarrak gaude.

Zein da familia berriro biltzeko jarraitu behar zaien pausuak?

Lehenengo eta behin, emakume boliviarraren ausardia azpimarratu nahiko genuke, izan ere bera da herria eta familia uzten dituen eta etorkizun hobearen bila joaten dena; gizona ez. Senarra eta seme-alabak batera ekartzen saiatu arren, normalean



“Familia uzten duena eta etorkizun hobearen bila joaten dena emakume boliviarra da; ez gizona”

seme-alabak etortzen dira lehenago, psikologikoki laguntza gehiago ematen diotela emakumeari, nahiz eta diru-sarrerarik ez ekarri. Eta zer egin behar da familia ekartzeko? Ba, bidaiarako dirua lortzearekin nahikoa izaten da, baina batzuetan gomendiozko gutunak egiten dira: legezko egoeran dagoen pertsona batek bisitaria bere kontu izango den konpromisoa hartu behar du. Bisitaria Estatu Espainolean hiru hilabetez gelditu daiteke, gehienez jota.

Beste aukera bat familia batera-tzearena da: aitak edo amak seme-alabak galdatzen ditu eta legeak ikuskatuta etortzen dira.

Hona ailegatu, eta zeintzuk dira izaten dituzuen arazoak?

Inportanteena informazio eza da. Hitz polit asko entzuten ditugu, baina errealitatea guztiz ezberdina da: hainbat ate jo eta leku batetik bestera bidaltzen gaituzte, lau datu biltzeko. Beste arazo bat erroldatzea lortzea da eta, noski, erroldatuta izan ezean, ez duzu inongo eskubiderik... Adibidez, umeei erroldatuta izan behar dute eskolara joan ahal izateko. Etxebizitzarena ere kezkarria da. Logela batean hiru lagun bizi izaten dira askotan eta bakoitzak 300 euro ordaindu behar izaten ditu. Eta lana... Nagusiek ez dute kontraturik egin nahi. Emakumeek nekame-lanak egiten dituzte eta gizonak obretara joaten dira, edo soloan lan egitera... Eta ez huts egin egun batean lanera joatetik!

Hurrengoan kalean zaude.

Zer deritzozue gaur egungo atzeritarrei buruzko legeari?

Onberagoa izan beharko litzatekeela pape-rak emateko orduan, izan ere, legezko edo lege kanpoko egoeran egonda, lan egitera etortzen gara eta herriko kapitala mugitzen laguntzen dugu. Beste alde batetik, etorkinen egoera erregularizatzeko azken prozesuak boterean dagoenaren interesen alde baino ez du jokatu. Ez digute informazio argirik eman eta prozesua amaitzeaz zegoenean hainbat agiri gehiago aurkeztu behar genituela esan ziguten. Eta agiri horiek lortzeko erroldatuta izatea ezinbestekoa zen... Ez barre egin gure lepotik, mesedez!

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Etorkinen arazoa ez da epe laburrean –ezta

*“Legezko edo legez
kanpoko egoeran egonda,
lan egitera etortzen
gara eta herriko
kapitala mugitzen
laguntzen dugu”*

luzean ere— konponduko, politikariak
batak besteari aurpegira botatzeko argu-
diorik gabe geldituko zirelako, baita etor-
kinen alde lan egiten dutenen botorik gabe
ere. Aurrekoan, 2004ko abuztuaren 8ra arte
heldutako etorkinen egoera erregularizatu-
ko zela esan zuten, baina mugak ez zituz-
ten itxi eta etorkinek etortzen jarraitu
zuten... Nola itxiko dituzte mugak?
Arrazistak izatea leporatuko zaie! Eta
mezua hurrengo hau da: lagundu inoiz
egingo ez dugun atzerritarrei buruzko lege
berri bat egiten. Horrek poltsikoak bete-
tzen eta Senatuan daukagun eserlekua
mantentzen lagunduko digu. Hitz politeta-
tik ekintzetara pasatu behar da. Orain 2,5
milioi atzerritar gaude Estatuan, baina zer
egingo dugu 4 milioi izango garenean?

**Egoera horrek delitua egitera behartzen
ditu batzuk?**

Delitua ez egiten irakatsi zaigu, baina jate-
korik ez badu, baliteke kolonbiar batek



Boliviako banderak eta ikurriñak bat egin zuten senidetasun-jaialdian

lapurtzea. Eta boliviarrak, eta euskal-
dun batek, eta frantses batek... Egoera hori
sistemak berak sortzen du. Hala ere, ezin
da generalizatu: etorkin batek legez kanpo-
ko jarrera izateak ez du guztiok berdinak
gerenik esan nahi.

**Txorierrin 92 boliviarrak bizi dira; zelan izan
da integrazioa?**

Oso pozik gaude eta pribilegiatutzat dau-
kagu geure burua, izan ere Txorierrin izan-
dako tratua bihotz-bihotzez eskertzekoa
da. Boliviarrak apur bat itxiak gara, baina
auzokideekin hitz egitera ausartu eta pri-
meran hartu gaituzte. Elkartearen egoitza

Bilbon daukagu eta laster ordezkaritza bat
Lezaman irekitzeko asmoa daukagu, eta
pisu bat ere ireki nahi dugu.

**Elkartea iazko abuztuan sortu zenuten,
zeintzuk dira zuen eginkizunak?**

Boliviako ondare kulturala —musika, dan-
tza, literatura, artea...—babesteko asmoz
sortu genuen hasiera batean. Baina erreali-
tateak beste lan batzuk egitera behartzen
gaitu. Horrela, bada, aholkularitzarako
zerbitzua ematen dugu, Gurutze Gorria eta
Caritasekin batera lan egiten dugu, famili-
koak ekartzen laguntzen dugu, lana eta
etxebizitza topatzen...

Zamudioko Gazte-Elai txistu taldea

“Urtean behin edo bitan elkartuko gara herriko jaietan parte hartzeko”

Hiru urteko geldialdi baten ostean, Zamudioko Gazte-Elai txistu taldearen berriak izan ditugu berriro. Gotzon Jauregi taldearen arduradunak euren proiektuak azaldu dizkigu.

Testua: Itxaso Marina

Txistu taldea aspaldian sortu zen...

Duela 32 bat urte. Garai hartan Zamudioko hamar umek osatutako talde-txo bat Sondikara joaten ginen solfeoa eta poxpolina (plastikozko txistua) ikastera. Gazteegiak ginen eta bertaraino joan behar ez izateko, abadeak Zamudiora irakasle bat bidaltzea erabaki zuen azkenean. Eta horrela sortu zen taldea. Sondikako txistu taldeak Elaiak du izena eta guk hortik hartu genuen Elai hitza.

Eta duela hiru urte desagertu egin zen.

Beno, desagertu ez da desagertu, oraindik irakasle bat eta ikasle bat daudelako. Baina egia da azken hiru urteotan ez gara la talde moduan ibili. Gazte asko unibertsitatean hasi eta entseguetara etortzeari utzi zioten. Horrezaz gainera, Bertoko elkarteak agertu zen eta beste batzuek txistua utzi eta trikitixa ikasteari ekin zioten.

Dena dela, proiektu berriekin agertu zarete orain. Zeintzuk dira proiektu horiek?

Partaide bati taldetik pasatu diren txistulari guztien zerrenda osatzea otu zitzaion, egunen baten guztiok berriro elkartu eta



jaialdi bat egiteko. Kontua mugitzen hasi zen, batzarrak egin dira eta datorren urteari begira Zamudioko Txistularien Eguna antolatzea pentsatu dugu. Eta horretan gaude, gaiari bueltaka, zer egin daitekeen pentsatzen: bazkaria, dantza talderen bat

ekartzea... Hori bai, taldean egon diren txistulari eta irakasle guztiak bertan izatea gustatuko litzaiguke. Eta ondo irtenez gero, baliteke datozen urteetan ere egitea. Beste alde batetik, ni Zamudioko Udaleko txistularia naiz eta kalejiretan bakarrik

ibili behar izaten dut gehienetan. Kalejira horietan antzinako partaideekin aritu nahiko nukeela komentatu nien batzuei, eta ilusio handiz hartu zuten ideia. Horrela, bada, astelehenero gelditzen gara entseguak egiteko, izan ere “berragerpena” Zamudio-ko San Martin jaietan egingo dugu. Baina ez dugu taldea berrartzeko asmorik, hau da, urtean behin edo bitan elkartuko gara herri-ko jaietan parte hartzeko, besterik ez. Kontua elkartzea, ateratzea eta zarata egitea da.

Zenbat txistulari batu zarete?

Berrogei txistulari inguru izango gara; hala ere, entseguetara 15 bat lagun biltzen gara. Irakasle bi gaude eta harrituta nagoela aitortu behar dut, entseguak uste baino hobeto irtetzen zaizkigulako. Batzuek duela bost urte utzi zioten txistua



Taldearen sorrera garaiko partaide batzuk

jotzeari eta beste batzuek orain dela askoz ere urte gehiago. Ondorioz, praktika eza nabariagoa da batzuegan beste batzuegan baino, baina ondo moldatzen gara. Izan ere, ondo ikasten dena ez da inoiz ahazten; lan handiagoa edo txikiagoa emango dizu gogoratzeak, baina ez duzu inoiz ahaztuko. Beste alde batetik, moti-

*“Datorren urteari begira,
Zamudioko Txistularien
Eguna antolatzea
pentsatu dugu”*

*“Motibazio eta ilusio
handia dugu;
haurtzarora itzuliko
balira bezala
da batzuentzat”*



Askotan egin duen bezala, taldearen bersorrera ere Gotzonen batutapean

bazio eta ilusio handia dugu; haurtzarora itzuliko balira bezala da batzuentzat... Antzinako garaiak gogoratzea, azken batean.

Txisturako zaletasun handia izan zen Zamudion aspaldian...

Bai, jende piloia izan gara eta askotan talde bi egin behar izan ditugu, kalejiretan aritzeko. Baina txistulari eza herri guztietan dago. Duela urte batzuk trikitixarekin ere gertatu zen: desagertzear zegoen eta Kepa Junkera edo Gozategi bezalako taldeei esker, berres-

kuratu zen. Jendea trikitixa ikastera animatu zen. Eta txistuarekin gauza bera gertatuko da, nire ustez. Denboraren poderioz, berreskuratuko da, bertako instrumentua delako eta Euskal Herriko dantza taldeek txistulariak behar dituztelako, dantza egin ahal izateko. Nola egingo dute bestela, kasete bat erabilita, agian?

Eta hortik dator hirugarren proiektua: txistulari talde berri bat osatzea, hain zuzen ere.

Bai, umeeekin zein helduekin sortzea gus-tatuko litzaidake. Solfeo apur bat irakatsi, dantza taldeekin batera aritzeko kanta batzuk ikasi, kalejiretan atera... Euskaldunok gure kulturaren alde lan egiteko garrantziaz jabetu behar dugu; inplikatu behar gara. Eta txistu taldea osatuko dela uste dut, izan ere seme-alabek txistua ikastea nahiko luketela komentatu didate ama askok. Entseguak egiteko lokala badaukagu; ez dago arazorik alde horretatik. Faltan dugun gauza bakarra hauxe da: proiektu berri bat martxan jarri nahi dela jendeari jakinaraztea eta jendea proiektu horretan inplikatzeko.



Ezta ile bat ere

Agur argizariri, bizar-xaflari eta pintzei! Laser-depilazioak ilea behin betiko kentzeko aukera



ematen digu. Sondikako Auxi apaindegiko Auxi Morientesek eta Derioko Leire Begoña ileapaindegiko Leire Begoñak metodo iraultzaile horren berri eman digute.

Zertan datza laser-depilazioa?

Ilea progresiboki kenduz joaten da, guztiz desagertu arte. Laserrak melanina barneratu eta zuzenean ailegatzen da ilearen papilaraino. Papila edo erro hori erre eta ilea berriro ez ateratzea lortzen da. Normalean ilearen %90a kentzen da, izan ere, %100a desagertaraztea ezinezkoa da, beste faktore batzuk kontuan hartu behar direlako: pertsona bera, ile mota eta hondar-ileak, besteak beste. Adibidez, laserrak ez dauka eraginik hondar-ileetan edo ilaunean, ezta oso ile argietan edo zurietan ere. Ile iluna hobeto ikusten du. Eta hondar-ileak izanez gero, berriro aterako dira.

Zenbat saio behar dira ilea desagertarazteko?

Ilea etengabe berritzen da eta "anagena" fasean egotea ezinbestekoa da, guztiz desagertarazteko. Hori litzateke onena, baina ez da horrela gertatzen. Saio bakoitzean ilearen %20a-%30a kentzen da eta tratamendua amaitutzat emateko, 3-6 saio beharrezkoak dira. Depilatu nahi dugun gorputz-atalaren arabera, saio horiek luzeagoak edo laburragoak izango dira. Eta saio batetik bestera 3 hilabeteko tarte itxaron behar da, tratamendua gorputzean egiten badugu; eta hilabete eta erdi edo hilabete biko tarte, aurpegian bada. Horrela, oraindik desagertu ez zaigun ilea "anagena" fasean harrapatuko dugu.

Laser mota batzuk daude; zein erabiltzen duzue zuek?

Bost urtean diodoa izan dugu, baina urtarritik hona argi pulsatua (ILP) erabiltzen dugu. Laser mota horrek eremu zabalagoa hartzen du eta tratamenduak laburragoak dira. Horrezaz gainera, min gutxiago egiten du, gela erabiltzen delako. Gel horrek erremisentsazioa gutxitu eta tenperatura hozten du.

Beste alde batetik, ilearen eta azalaren kolorea kontuan hartuta, parametro batzuk sartzen dira makinan, izan ere bezero bakoitzari

“Laserrak melanina barneratu eta ilearen papila erre egiten du. Horrela, ilea berriro ez ateratzea lortzen da”

ri tratamendu pertsonalizatua egiten zaio. Depilatu nahi duen gorputz-atala ere kontuan hartzen dugu. Atal guztiak depilatu ahal dira laserren bidez, bekainak izan ezik, begietatik hurbilegi daudelako. Begiak babesteko, bezeroak zein guk betaurreko bereziak jarri behar ditugu tratamendu osoan zehar.

Nortzuek egin ahal dute halako tratamendua?

Mundu guztiak, hala ere neskei 18 urte bete

arte eta mutilei 20 urte bete arte ez egiteko aholkua ematen diegu, adin hori baino lehenago ez daudelako erabat hazita, eta tratamendua eragingabea izan daitekeelako. Haurdun daudenei ere ez egiteko esaten diegu, hormona-aldaketak izaten dituztelako. Eta oso beltzaranak diren pertsonak ezin dute egin, laserrek ez duelako haien ilea ikusten.

Bezero bakoitzari fitxa bat egin eta medikamentu bereziren bat hartzen ote dabilen galdetzen zaio, izan ere medikamentu batzuk fotosentikorak dira eta azala erre egin liteke. **Nola prestatu behar dugu azala eta ilea, tratamendua egin aurretik?**

Aurreko hilabetean ezin da ez eguzkia hartu, ez depilatu pintzak edota argizaria erabiliz. Ezta solariumera joan edota autobrontzeagailua aplikatu ere ez. Eta tratamendua bukatu ondoren eguzkitik babestu behar dugu depilatutakoa; aurpegian, adibidez, erabateko babesa erabili behar dugu. Dena dela, bezeroei hori guztiori azaltzen zaie tratamendua hasi baino lehen. Laserrak bigarren mailako efekturik ez badu ere, batzuetan hiperpigmentazioa edo despigmentazioa ager daitezke azala oso iluna duten pertsonengan. Oso kasu berezietan izango da hori, baina bezeroak jakinaren gainean izatea ezinbestekoa da, arazoak ekiditeko.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Idazkuntza lantegia on-line

AEK-k Idazkuntza lantegia on-line ikastaro birtuala sortu du, ikasturte berriari begira. Ikastaroon helburu nagusia idazmena lantzea da eta, bertan parte hartzeko nahi-koa da ordenagailua eta Interneterako lotura izatea. Ikasleak ez du programarik instalatu behar, lan guztia Internet bidez egiten baita. Horrezaz gainera, harreman

jarraitua izango du tutorearekin, posta elektronikoaren eta programak eskaintzen dituen foro eta txat saioen bidez.

Proiektua Moodle programa (software askea) erabilia egin dute eta idazmena maila hobetu nahi dutenei zuzenduta dago. Lau hilabeteko ikastaroa da eta, batez ere, iritzi testuak landuko dira. Horretarako, egunkari eta aldizkarietako testuak hartuko dira oinarritzat.

Ikastaroan izena emateko, mezua bidali behar da hurrengo helbide honetara: bakarne@aeeknet.net. Informazio gehiago www.aeeknet.net/autoikaskuntza web gunean.



Iradokizunak

EuskalMusika.com

Atal hori euskal musikaren gaineko eztabaidagunea da. Azken orduko albisteak emateaz gainera, taldeei buruzko iritziak edo kritikak plazaratu daitezke bertan. Era berean, web guneak azoka atala du eta musika taldeak osatzeko iragarkiak jartzeko aukera ematen du.

Xuxen berri-berria

Xuxen euskararen zuzentzaile ortografikoaren bertsio berriak www.euskara.euskadi.net helbidean eskura daitezke, Softwarea deskargatzea atalean, hain zuzen ere. Bertsio horiek (Microsoft Office, Mac Word X eta Windows eta Linuxerako OpenOffice.org) IXA taldeak egindako Euskararen Datu Base Lexikalaren datuak dituzte. Aurreko bertsioak ere topa daitezke web gune horretan.

Deusto.TV

Deustuko Unibertsitateak Deusto.TV proiektua jarri du abian (www.deusto.tv). Bertan hamahiru kanal eskaintzen dira: horietariko zazpi irekiak dira (Agora, Comunicación, Cultura Vasca, Forum Deusto, Innova, Research Channel eta University of Washington) eta beste seiak erabiltzaile baimenduentzako kanalak dira (Ciencias Humanas, Ciencia y Tecnología, Deusto BBVA, Empresa, Jurídico eta Pensamiento social). Kanal guztiak oraindik ez daude martxan, baina ikasturte honetan guztiak jartzeko asmoa dute. Euskarazko kanalik ez dago.

Proiektuaren helburua da Internet bidez plazaratzea prestakuntzari eta lanbideei buruzko edukiak eta kulturari buruzkoak. Bideoak Windows Media erabilia ikusi ahal izango dira eta zuzenean edo emanaldi diferituan botako dituzte. Horrezaz gainera, kanal bakoitzak eztabaidagunea, txat-a, bideoteka eta audioteka izango ditu, besteak beste.

Proiektuak prestakuntza eta lanbide-edukiak Internet bidez ematea du helburu, baita kulturari buruzkoak ere bai. Bideoak Windows Media erabilia ikusi ahalko dira eta zuzenean edo diferituko emanaldian botako dituzte. Horrezaz gainera, kanal bakoitzak eztabaidatzeko forua, txat, bideoteka eta audioteka izango ditu, besteak beste.

“Gure Herriko Doinuak”, kontzertu liluragarria



Kontzertua irailaren 4an egin zan, Lezamako elizan, Andra Mari jaien egitarauaren barruan. Antolatzaileak Zorritzketan, Ekidazu eta Jai-batzordea izan ziren. Lauzpabost dozena lagun batu ziran geure-geureak diren doinu ederrak entzuteko, eta ez ziran damutu. Beharbada, antolatzaileak bai damutuko ziran, kalitatezko ekitaldi honek Lezamako publikoaren aldetik hain erantzun eskasa izateagaitik...

Hiru zatitan egoan antolatuta kontzertua, hirurak be Euskal Herriko doinu eta melodiez osoturik:

Lehenengo zatian, euskal doinuen moldaketak jo ebezan Lezamako musikari gazte, jator eta etorkizun handiko Leire Iturriozek (pianoagaz) eta Iñaki Aretxabaletak (biolinagaz). Errepertorio polita eskaini eben: Olaizolaren *Haurtxoa seaskan* Gabonetako kantu ezaguna; Mikel Laboaren *Negu hurbila*, Juan Carlos Irizarrek prestatua; Aita Donostiak harmonizatutako *Oñazek Lekarozko* kantua eta

Pablo Solozabalen *Otz eta itxiltso*. Basatirik handiena gortaratzeko moduko ekitaldia izan zan.

Bigarrenengan, hari beretik baina instrumentu barik, edo hobeto esanda, 25 neska-mutilen aho-kordak afinatuz, Agurtxu Garai bermiotar musikari gazteak Lezamako Ekidazu abesbatza zuzendu eban, eta euren koru musika dingilizka ipini euskuen elizako arkuetatik beherantz (*Txanto Piperri* operako *Euskal Herriko* ospe-tsua, *Begira nago* melodia ederra, *Iruten ari nuzu* Iparraldeko kantu gozoa eta *Mendirik*

mendi martxa ezaguna eta alaia). Badoaz euren polifoniarako dohainak ataratzen, une batzutan eliza osoa dozenaka nota harmoniatsuz beterik.

Eta kontzertuaren azken zatian heldu zan tontorrera, esperientzia sentsitibo pare bakoia esperimentatu eta gero: altarrera begira eta atzeko parteko korutik etorren musika zoragarria entzunez, soprano baten ahotik eta organo jolearen esku-hanketatik sortutako euskal melodiakaz gozatzuz. Nuria Orbea bilbotar soprano ospe-tsua kantu eta flauta musika ikasketak egin ondoren Salzburgoko Mozarteum unibertsitatean graduatu zan Lied eta Oratorio arloetan. Aldizkari osoa beharko zan bere curriculum zabalaz idazteko, zenbat lekutan eta zenbat orkestra eta zuzendari handigaz batera abestu dauan esateko. Bardin antzera gertatzen da Maite Aranguren organo jolearen ibilbide musika deskribatzeko. Lau abesti honeekaz: Iparragirreraren *Ara non dira*, Estitxuren *Agur Maria*, Aranbarriren *Amak ezkondu ninduen* eta Guridiren *Mirentxu* operako aria ezagunagaz, narrua oilo eperdiaren antzera eta buruko uleak gora adi ipini eutsazan publikoari.

Eta guzti hau, antolatzaileek zoli eta argi adierazi eben moduan, musikoei esker, Lezamako Parrokiak itxi eban, ez bakarrik erlijinorako edo espiritualidade-rako, musika eta kulturarako be leku zoragarri horri esker, eta Agurtxu Garai “Lezamako bermiotarraren” zuzendaritza artistikoari esker. Nik neuk hamar biderrez be entzungo neuke kontzertu bera nekatu barik.

Testua: Pospolin
Argazkia: Iñaki Sagrario

Eta, irakurleok, zein da zuon iritzia?
Gura baduzue idatzi gure helbide elektronikoa honetara:
aikormusika@yahoo.es.

Erromatarren aurreko aztarnak Txorierrin

36ko gerrako Burdinazko Gerrikoagaz nahasteko arriskua egon arren, Txorierrin erromatar garaiko eta lehenagoko aztarna arkeologikoak badagoz. Hara non eta Berreaga mendian.



Goian: Berreagako hilarriak. Argazkia: UNZUETA PORTILLO, Miguel. *Arkeoikuska* 2003. 2004. urtean.

Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak argitaratua.

Behean: Euskal Herriko hilarria. Argazkia: *Leku sinbikoen gida - liburua*. "Euskal Herri enblematikoa" Bilduma. 1999. urtean. Bolivia argitaletxea. Ostoa, S.A.

Berreaga mendia (367 m) Mungia eta Zamudioko mugan dago. Larrabetzuko Gaztelumenditik (323 m) datorren mendilerroko mendebaldeko tontorra da. Foru Aldundiko arkeologoek nekropoli bat eta irun edo kastro bat aurkitu ebezan tontor horretan. Kristo aurreko III. mendetik Kristo osteko I. mendera bitartean bizi izan zan jendea bertan. Irun horretan alderdi bi dagoz. Alderdi bat triangelu isoszelearen formakoa da eta harriz betetako harresi zabal bi ditu; tontorraren eta San Bartolome ermitaren artean kokatuta dago. Beste alderdia aurrekoaren ondoan dago eta trapezoide-formakoa da; laua da eta lubaki sakon batek ixten du hegoaldetik.


Hilerria lubaki horren ondoan dago eta bertan topatu dira hilarriak eta zeramika, harri eta metalez egindako tresnen hondarrak.

Hilerriak Deba eta Nerbioi arteko eremuan aurkitutakoen ezaugarriak ditu eta, orotara, 149 estela edo estela zati bildu ebezan arkeologoek. Estelak trapezoidalak (altuera: 0,65 m; oinarriaren zabalera: 0,40 m; buruaren zabalera: 0,25 m eta lodiera 0,20 m) eta biribilak dira eta, letren orde, irudi geometrikoak eta izarrekikoak dabez. Hilarri trapezoidaletan

gehien agertzen dan irudia marra paralelo biko gurutzea da. Halan be, gurutzeok ez dauke zer ikusirik kristautasunagaz, izan be, Kristo aurrekoak dira. Estela biribilek, barriz, hiru beso kurbatuko gurutze bi dabez. Zirkunferentzia bik gurutzeak inguratzen dabez eta koroa be badabe. Berreagako aztarnak Gorliz, Meñaka, Dima, Forua, Munitibar eta beste toki batzuetan dagozanen antzekoak dira.

Aztarnategia dagoan tokia txarto zainduta dago: pinuak ataraten ibiltzen diran makinek nekropolia hondatu egin dabe eta ez dago ez babesik ez seinalerik.

Ona izango litzateke halako leku bati merezi dauen babesia emotea, egon be, ez dago beste babesik inguru hori guztia hartuta dauken sasiak baino. Ha eta guzti be, merezi dau haraino joatea: irunaz ganera, Txorierriko eta Mungialdeko ikuspegi ederrak dagoz handik, eta, zorte-rik izanez gero, Berreagak mailuki bat edo beste oparituko deutso postre moduan.



Testua: J.I. Eguzkizaga

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Krepak

- 50 gr. maizena
- 150 gr. urun
- Sobre erdi legamia (lebadura)
- 4 arrautza
- 3 koilarakada olio
- 150 cl. ur
- 150 cl. esne
- 50 g. azukre
- Limoia azala
- Gatz apur bat

Prestatzeko era:

Ura, limoia eta esnea izan ezik, beste osagai guztiak nahastu. Apurka-apurka ura eta esnea bota, oreka (masea) eginda egon arte -behar izanez gero, erabili minipimerra pikorik (grumorik) ez izateko-. Eta ondoren, limoi azala bota.

Frijiduteko zartagina gurinagaz (mantekilleagaz) untan eta jarri bertan oreka. Krepak gura dozunagaz bete ditzakezu: janari gaziekaz zein gozokaz (pernila, txokolatea, marmelada...). On egin!



Mari Tere Onaindia

Kantxantxara

Zerurena jatetxea Sondikan



Osagaiak

- Limoia baten zukua
- Ezti koilarakada bi
- Kaña-pattar txorrotada ederra
- Izotzak eta ur minerala (gas bakoia)

Prestatzeko era:

Edalontzi zabal batean (kantxantxara Kubako edaria da eta bertan lupetzaontzi batean edota koko azalean egiten da) ezti eta limoia nahastuko ditugu koilara batekin, dena bat egin arte. Ondoren, pattar txorrotada bat bota (bakoitzak nahi duen beste) eta azkenik, izotzak eta ura gehituko ditugu, edalontzia ia bete arte. Eta badugu dastatzeko prest.

Edari freskagarria da eta osasunerako guztiz onuragarria, bere osagaien ezaugarriak direla-eta. Osasuna denentzat! Hala izan dadila!

NAGUSIEN SAILA

Nocturno

Gaizka Arostegi. Iparraldean kokatu-tako istorioa. II. Gerra mundiala eta Begoña, Espainiako gerra zibilean errefuxiatutako emakumea, erresistentziakoakaz lanean.

Robert Capa

Edorta Jimenez. Endre Ernő Friedmann (Budapest, 1913–Indotxina, 1954), hauxe zan Robert Caparen goitizenaren ostean egoan gizona. Argazkilari ospetsu hau Espainiako gerra zibila, Normandiako lehorre-ratzea eta Israelen sorreraren lekuko izan zen, besteak beste.

HAUR ETA GAZTE SAILA

Maitagarrien hiru ipuin

Gustavo Martín Garzo. 2004ko Espainiako haur eta gazteentzako literaturako Sari nazionala.

Zazpigarrena eta azkena

Patxi Zubizarreta

Nemesioren itzala

Pako Aristi

Omar dendaria

Harkatz Cano

MUSIKA

Udazkenean aterako da laukote ho-nen diska bana: **Mikel Urdangari-nen** Dana irailean. **Muskildiko,** **Pierre Paul Berzaitz,** Lili baten kanto -rea azaroaren hasieran. **Mikel Labo-arena** azaroaren amaieran eta **Benito Lertxundiren** Zuzenean-40 urtez ikasten egonak, urrian.

DENBORA PASA

LETRAZOPA

A	U	B	A	L	Y	J	I	H	G	F	B	A
X	E	K	X	A	R	R	A	S	U	G	A	S
K	O	Z	T	I	J	K	I	P	O	O	G	K
O	G	I	G	A	S	T	A	Y	A	D	H	O
R	T	L	S	M	J	R	N	P	H	X	E	N
Z	Y	J	N	C	O	M	H	R	K	B	P	A
A	R	U	E	I	S	E	B	H	D	E	A	R
R	T	D	G	Z	I	P	M	E	Y	F	E	R
R	Y	G	X	K	B	N	D	K	U	I	S	A
O	S	P	U	I	D	F	L	R	B	T	M	S
T	T	L	J	Ñ	O	E	B	R	Y	L	M	U
A	D	R	F	M	I	X	E	R	R	A	X	L
S	U	G	K	N	F	B	A	Ñ	Z	N	A	Z

A	Z	R	F	N	T	M	F	U	Ñ	K	T	U
A	S	I	E	R	B	I	D	A	R	T	O	A
Z	A	F	Y	N	D	K	E	G	A	E	R	G
K	P	B	O	S	Ñ	E	E	T	F	L	J	A
O	S	T	R	H	N	L	G	H	A	K	L	Z
R	G	O	U	U	M	A	P	D	L	D	L	A
R	X	E	I	O	D	R	B	P	A	I	K	R
A	G	Y	Z	A	S	T	G	B	N	L	J	R
I	B	O	N	I	R	E	M	E	D	E	P	U
H	Z	R	B	M	E	T	Y	H	A	F	X	A
H	Ñ	A	F	D	P	X	A	J	M	L	M	D
S	Y	I	X	X	I	E	J	M	Z	N	K	I
O	L	A	B	A	R	R	I	E	T	A	J	B

Aurki itzazu goiko letrazopan **7 animalien*** izenak. Kon-tuan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Zamudio berbarik berba" liburutik jasoak.

Ezkerraldean Aikor! 40. zen -bakiaren letrazoparen eran-tzuna. 2004. urtean zehar **AIKOR!** aldizkariaren portada izandako 7 pertsonaien ize-nak.

guska herriko d-generazioa

uste dot maite dezakezen neska bakarra ikusten ari naizela, oooooohhh!

Kim Basinger!

NON!!???

aritz eta nagel aipor! as-eko irailak 16

bena... maite al dadan bietariko bat...

Agenda

Antzerkia eta filmak

Sondika

–*Jostailuen kutxa*, Mariona Masgrau taldearen eskutik. Urriaren 21ean, 18:30ean, Kultur Etxean.

–*Punto rabo*, Markeline taldearen eskutik. Urriaren 28an, 22:00etan, Kultur Etxean.

Zamudio

–*Un canguro superduro*, urriaren 2an; *Robots*, urriaren 9an; *Miss agente especial*, urriaren 16an; *El caballero negro*, urriaren 23an eta *La búsqueda*, urriaren 30ean. Guztiak 17:00etan, Dorretxean.

Azokak

Loiu

–XIII. Eskulangintza eta Gastronomia Azoka, urriaren 16an.

Lezama

–Uzta Eguna, urriaren 2an.

Erakusketak

Sondika

–Sondika-Goiri argazki elkartearen erakusketa. Urriaren 3tik 28ra, liburutegian.

Zamudio

–Hans Christian Andersen idazlearen ipuinen erakusketa. Urriaren 3tik 8ra, liburutegian.

Hitzaldiak

Derio

–Moçambique, lehoi gabeko herria diaporama, Iñigo Urrutiaren eskutik. Urriaren 6an, 20:00etan, Larrabarri baserrian.

Larrabetzu

–Euskara batua. *Ezina ekinez egina* liburua-
ren aurkezpena, Koldo Zuazoren eskutik. Urriaren 27an, 20:00etan, Kultur Etxean.

Ikastaroak

Sondika

–Komunikazio eta autoestimazio ikastaroa. Azaroaren 7tik urtarrilaren 10era bitartean, Kultur Etxean. Izena emateko epea: urriaren 3tik 7ra.

Zamudio

–Aisialdiko begirale ikastaroa. Izena emateko epea: urriaren 4a baino lehen, Udaletxean, 9:00etatik 13:30era.

Irteerak

Derio

–Kilometroak, urriaren 2an.

–Nafarroa Oinez, urriaren 16an.

Zamudio

–Kilometroak (Leintz), urriaren 2an.

–*Obaba* filma ikustera. Urriaren 9an, 17.30ean.

–El lindo don Diego antzezlan ikustera.

Urriaren 11an, 20:00etan, Arriaga antzokian.

–Nafarroa Oinez (Altsasu), urriaren 16an. Udalatx, urriaren 23an.

Lezama

–Arkamo. Urriaren 9an.

–Guara. Urriaren 29tik azaroaren 1era.

Jaiak

Lauroeta. San Migel, irailaren 29tik urriaren 2ra.

Kirola

Sondika

–Frontenis bikote-txapelketa, urriaren 22an, Goronda Beko kiroldegian. Izena emateko epea: urriaren 3tik 9ra.

Derio

–Garraiorako eta Aisialdirako Bizikletaren III. Urriaren 12an, 10:00etan, Seminarioan.

Bestelakoak

Derio

–Merkataritza Astea, urriaren 15etik 23ra.

–Kantuz, urriaren 14tik aurrera eta ostiraleko, 18:30ean, Larrabarri baserrian.

Lezama

–Erreka Eguna, urriaren 23an.

–Irakurzaletasuna piztea, urriaren 28an liburutegian.